


Puioko parkea ostiralean inauguratuko dute



Puioko parkea inauguratuko dute udal agintariek ostiralean, hilak 26. 119.277 metro karratu ditu parkeak, eta bertan hiru gune bereizi dituzte: haurrentzako jolas gunea —Puioko etxearen ondoan— eta bi begiratoki. Begiratokiek hiriarren ikuspegi paregabeari eskaintzen dute. Puioko kalean eta Etxadin dituzte sarrera nagusiak parkeak. Hala ere, Merkezabal kaleetik sartzeko aukera ere badago.

Olnezkoentzako ibilbideak, eserlekuak eta bestelako hiri altzariak ditu Puioko parkeak. Zuhaitzak ere landatu dituzte. Lan hauetako asko gazteen

eskola tailer batek egin ditu. Guztira, 400.000 euro bideratu ditu Udalak parkea egiteko.

Odon Elorza alkateak adierazi duenez, "parkearen kokapena dela eta, batik bat Etxadiko, Puioko eta Morlanseko auzotarrek erabili eta gozatu ahal izango dute. Aurrerantzean, gainera, Lanberriko eta Morlanseko etxebizitzak eraikitzen direnean, erabiltzaile gehiago izango ditu".

Parkea ostiralean inauguratuko duten arren, datozen hilabeteetan lanek jarraituko dute. Esaterako, berdeguneen eta landareen egokitzapena datozen hilabeteetan egingo dutela jakinarazi du Udalak.

Pasaia eta Mutriku portuak hizpide

Pasaian eta Mutriku egin nahi dituzten portuei buruzko gogoeta saioa egingo da Donostian, hilaren 29an, astelehena, Koldo Mitxelena kulturunean, 19.00etan. Egitasmo horien aurkako Jaizkibel Bizirik eta Mutriku Santakarra Bizirik, Mutriku Gazteak eta Hobetu Leike taldeek antolatu dute ekimena. Jardunaldiotan bi hitzaldi eskainiko dituzte. Batean, proiektu horiei buruz ariko dira zenbait hizlari, tartean Xabier Ezeizabarrena abokatua eta EAJ-EAko zinegotzia eta Jose Angel Torres Aranzadiko geologoa. Bestean, EHUko irakasle Roberto Bermejok garapena eta ekonomia izango ditu hizpide, betiere aipatutako bi proiektuekin lotuta.

GPSa Vallina taxietan

GPS sistema ezarri du taxietan Vallina enpresak. GPS sistemak puntako teknologia erabiltzen du, eta horren bidez zerbitzuaren kontrola eta kudeaketa hobetu nahi ditu Vallinak. GPSak satelite bitartez funtzionatzen du eta, hari esker, taxia zehatz-mehatz non dagoen jakingo da. Beraz, taxi-eskatzaileari harengandik gertuen dagoen autoa bidaltzea erraztuko du sistemak. 130 autotan ipini dute GPSa, eta 421.000 euro bideratu ditu enpresak sistema ezartzeko.

Ospitaleko aparkalekua ez da doan izango

Eusko Legebiltzarreko Osasun Batzordeak atzera bota du Donostia ospitaleko aparkalekua doan izateko Sozialista Abertzaleak taldeak aurkeztutako proposamena. EAJk, EAK eta EB-IUK proposamenaren aurkako botoa eman zuten, eta PPK eta PSE-EEK ez zuten ez eztabaidan ez bozketan parte hartu.

lazgo urrian jarri zuten martxan aparkaleku berria Donostia ospitalean, eta hasieratik ika-mika sortu du, gaixoeen senideek eta behin-behineko langileek 0,6 euro ordaindu behar dutelako orduko. Legebiltzarraren erabakiaren ostean, beraz, egoerak bere horretan jarraituko du.

